



BARREN

TOKIKOM

**Berde behar lukeena,  
gorri**



## Santiago Urain Longarte

2018ko abuztuaren  
11n hil zen,  
60 urte zituela.

*Eskerrik asko, aitatxo,  
emandako denagatik,  
maitasunak nola behar duen  
argi azaltzeagatik.  
Eman daitekeen onena  
atera zaizu barrutik,  
umiletik eta sinpletik,  
xumetik eta goxotik.  
Babesa sentitu dugu  
luzaro zure eskutik,  
orain jarraitu nahi dugu  
zuk utzitako bidetik.  
Nola eraman zaituzten  
hemendik gure ondotik,  
jakin ez zarela joango  
inoiz gure bihotzetik.*

Sendiak



Bideburu baserria



## Ander Arambarri Amenabar

2018ko abuztuaren 16an hil zen, 40 urte zituela.

*Izar bat piztu da zervan,  
gu zainduko gaituena eta guk beti maiteko duguna*

Zure familia



## Ander Arambarri Amenabar

2018ko abuztuaren 16an hil zen, 40 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Ander Arambarri Amenabar

2018ko abuztuaren 16an hil zen,  
40 urte zituela.

*Hemendik nabari da zure soinuaren doinua  
ta izar berri baten dizdira,  
gure bihotzetan zure irria,  
elkarrekin egingo dugu bidea,  
zu izango zara gure argia.*

Mendaroko lagunak



11 EGUN EUSKARAZ  
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

EUSKARALDIA



## AHOBIZI edo BELARRIPREST?

Euskaraldian parte hartu nahi dut.  
Baina zein rol aukeratuko dut?  
**Belarriprest? Ahobizi?**

**1** Norbaitek euskaraz egiten dizunean, ulertzen al diozu?

**BAI**

**EZ:** Euskaraldia ez da zuk parte hartzeko egokia. Ulermena landu dezakezu eta hurrengoan parte hartu. Hala ere, aurten giroa sortzen eta errazten lagundu dezakezu.

**2** Prest al zaude jendeak zuri euskaraz egiteko?  
Ondo hartuko al zenuke dakiten guztiek zuri euskaraz egitea?

**BAI**

**EZ:** Euskaraldia ez da zuk parte hartzeko egokia

**3** Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean ulertzen duten guztiekin euskaraz soilik egiteko prest al zaude? Ezagunekin zein ezezagunekin, edonon eta edonoiz, batzuetan solaskideak erdaraz erantzun arren?

**BAI**



**EZ**





## ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea

## Euskaratik eta euskaraz

Ez da gauza berria jaiak festa izateaz gain aldarrikapen eremu ere badirela, baina garrantzitsua da gogoratzea eta gogoraraztea mezua ez ezik mezuaren forma kontuan hartzea ere ezinbestekoa dela. Oraingoan hizkuntzari buruz ari naiz, mezu bat edo beste euskaraz transmititzeari buruz, ale-

gia. Horrenbestez, herriko festak joan diren honetan, ez dator gaizki horri begira balorazio bat egin eta datorren urtean hobetzekoak hobetze aldera, autokritika apur bat egitea.

Uneoro ari gara mezuak transmititzen, hitzen bidez, keinuen bidez, pankarten bidez edota aukeratzen ditugun kanten bidez, eta uste ez badugu ere, guzti horiek dira garrantzitsu jai-eremuan adierazi nahi duguna adierazteko orduan. Behin baino gehiagotan galdetu beharko genioke geure buruari zein helbururekin egiten ditugun hautu horiek, askotan inertzia hutsez burutzen baititugu,

publiko zabalago batengana iristeko asmoarekin, bestela, edo festa-giroan zenbait gauza onargarriagoak direlako, agian.

Adibide hutsal bat jartzeko, gazteen egunean bingo musikatua bat antolatu genuen bazkalosterako, eta gutxi gorabehera abesti haien % 50 soilik izan ziren euskarazkoak. Jokoaren balorazio positiboa egin arren uste dut behin eta berriz gogoratu behar diogula geure buruari hitz bat, keinu bat, pankarta bat edota kanta bat hautatzeak beste hitz bat, keinu bat, pankarta bat edota kanta bat alde batera uztea dakarrela.

*“Herriko festak joan diren honetan, ez dator gaizki horri begira balorazio bat egin eta datorren urtean hobetzekoak hobetze aldera, autokritika apur bat egitea”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Lehen Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzurika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, losu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR  
UOLA  
KULTURAREN  
ERKATEGIA

LAGUNTZAILEAK:

MENDAKO  
UOLA

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► JAIEN BALORAZIOA

Asteartean bukatu ziren Elgoibarko jaiak, eta behin egun batzuk pasata, jaien inguruko lehen irakurketa plazaratu nahi genuke. Hasteko, jaietako azken gauean izandako eraso sexistaren salaketa azpimarratu nahi genuke, jaiak ilundu dituenak. Gizarte heteropatriarkal honetan Gune Askea ere ez dago erasoetatik libre, beste behin frogatu bezala. Horren aurrean gune aske eta seguruak osatzeko lanean eta borroka feministan inplikatur jarraitzeko asmoa berresten dugu. Erasotzaileak kanpora!

Gazitik bezala izan du ordea gozotik ere jai giroko azken aste honek. Positiboki baloratzen dugu ekintzetan ibilitako jende

kopurua, jaiak haur eta nagusietara zabaltzeko saiakera, ekintza berriak (Larrain dantza kasu) eta aldarrikapenen indarra: natur ondarearen defentsa, gune autogestionatu eta gaztetxeena, euskal preso politikoa eta Sebas etxeratzearen aldarria, borroka feminista, pentsiodunei errekonozimendua eta *Altsakukoak aske!* oihua eta jai euskaldunen lanketa.

Ezin ahaztu, noski, hau guztia posible egin duzuenok: txosna txanda egin dutenak; muntaian jardundakoak; Txona eta Bittor; Gazteen eguneko kuadrillak; Harritz, erreko gidari; Soarte eta BARREN, argazkilari; Sahatzu, sukaldari; Udaleko/brigadako/mankomunitateko langileak, Elgoibarko elkarteak (Egur,

Elgoibarko Izarra, Narrutsik, Jaiki, Gazte Asanblada, Sebas Etxera, Sare, Duintasuna, Sinuose, dantza ikastaroko ikasleak, gaiteroak...) eta, noski, era batera edo bestera, jai egitarauko ekintzetan parte hartu duzuen guztiok. Denon artean soilik dira posible jaiak, denon artean soilik hartzen du zentzua gure aldarriak: *jaiak herritik eta herrixantzako!*


Seguru ahaztu dugula norbait, eta seguru egin ditugula hanka-sartzeak geuk ere. Gure jardunarekin kalterik eragin badugu, kontuan hartu eta hobetzen saiatuko gara. Hurrengo urtean ere gogoz eta indarrez beteta bueltatuko gara! Aupa Elgoibar!

**Maalako Jai Batzordea**



## Miguel Arrieta Usabel

2018ko abuztuaren 21ean hil zen, 87 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



VII. URTEURRENA

*Leire*

*Ugarteburu Gabilondo*

***Urteko egun guztietan  
bizi eta biziko  
gure gogo-bihotzetan  
maite hori!***

Etxekoak

2011 - 08 - 18

## Hiru haur parketako zoruak berritu dituzte abuztuan Elgoibarren



**G**omazko zoru berria jarri du Elgoibarko Udalak herriko hiru jolas parkeetan: Maalan, Giza eskubideen parkean eta Santa Klaran. Aldaketa lanak abuztuan egin dituzte.

Hiru jolas guneen zoruaren azalera kontuan hartuta, 450 metro koadro berritu dituzte guztira, eta lanok 38.000 euroko kostua izan dute.

Lanean hasi aurretik Ane Beitia alkateak adierazi zuen familiak sarritan joaten diren hiru gune direla eta erabilera eta denboraren joanaren ondorioz goma nahiko gastatuta zegoela. "Lan hauen bitartez instalazioak ahalik eta ondoen mantentzea da gure asmoa, eta era berean, erabiltzaileek segurtasun handiagoa izatea".

### Skate parkea Basarten

Bestalde, Elgoibarko Udalak kendu egin ditu Urazandin zeuden patinatzeko instalazioak eta leku horretan aparkatzeko leku gehiago sortu ditu. Skate zaleak, baina, ez dira tokirik gabe geldituko, beste skatepark bat egiteko lanak irailean hasiko dituelako Udalak. Basarte auzoan dagoen berdegune batean eraikiko dute skate parkea eta hormigoizkoa izango da.

## Jon Zubiaurrek jaso du Sallobenteko saria



Sallobenteko jaietan auzoko elkarteak zozketatu zuen txahalak badu irabazlea. 41.103 zenbakiaren jabeak, Jon Zubiaurrek, eraman du saria. Txahalaren orde, baina, dirua jaso du: 1.205 euro, txahalak dirutan balio duena hain zuzen ere.

### Bigarren eskuko azoka domekan, Mendaron

Domekan, irailaren 9an, bigarren eskuko azoka izango da Mendaroko frontoian 11:00etatik 14:30era bitartean. Etxean bazterrerara utzitako arropak, zapatak, liburuak zein bestelako tresna edo hornidurak saldu ahal izango dira, baina ez komertzioetako produktuak. Horrela, saltzen diren horiek berrerabili egin ahal izango dira. Aurrez azokan erosketak egin dituztenek aukera politak lortu dituzte eta antolatzaileak ere pozik daude. Ondorioz, beren asmoa da abenduan beste bat antolatzea eta arrakasta bera izanez gero, aurrerantzean hiru hilabete behin bat egitea. Jendea salerosketan ari den bitartean txikienek ere izango dute beren txokoa frontoian. Izan ere, artea eta birziklapenarekin lotutako Mandira Studio proiektua jarri dute abian Mendaron, eta azokan haurrentzako birziklatze tailerra izango da jolastu eta ikasteko.

### Kataluniako preso politikoen aldeko keinua

Katalunian ezezik, Euskal Herriko hainbat txokotan ere hasi dira Kataluniako preso politikoen aldeko ikurrak jartzen. Kataluniako preso politikoei elkartasuna adierazteko Elgoibarren ere ipini zituzten lazo horiak astelehenean San Frantziskotik Urazandira artean Deba Ibaia gurutzatzen duen zubiko barandetan.



## IMH-EHUko Digital Manufacturing masterrak Eusko Jaurlaritzaren errekonozimendu duala jaso du

Railaren 25ean jarriko du abian IMH Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuko Ingeniaritza Dualaren Eskolak Digital Manufacturing unibertsitate-masterra, EHUrekin batera. Masterrak baimen ofiziala jaso zuen ekainean eta abuztuan errekonozimendu duala jaso du Eusko Jaurlaritzatik, biak eman dizkio Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea ebaluatu eta egiaztatzen duen UNIBASQ agentziak.

Digital Manufacturingeko Unibertsitate Masterraren programa inguruko puntako enpresekin elkarlanean diseinatu du IMHk. Enpresa horiek edukiak zehazten lagundu dute eta hainbat arlotako prestakuntza emango dute: fabrikazio aurreratuko ingeniartzaren gaitasun teknikoak (automatika, mekanika, elektronika...), industria-antolaketako oinarriak, eta digitalizazio industrialaren behar berriak konektatutako fabrika adimendunetarako. Izan ere, industriaren digitalizazioan sortutako testuinguru industrial berriari buruzko prestakuntza zehatza ematea da masterraren helburuetariko bat, baita fabrika adimentsua erraztasunez erabiliko dituzten espezialistak prestatzea ere.

Masterra, bi urtean barrena, formato dualean irakatsiko dute. Hau da ikaslea eskolan eta enpresa batean arituko da eta alternantzia egingo duen enpresan gutxienez %50eko lan-kontratua izango du. Masterreko eskola teorikoak emateko IMHko instalazioez gain, Tecnalia, CFAA-Zamudio eta IK4-Ideko ere baliatuko dituzte.

### Emakumeentzako bi ahalduntze saio irailean Elgoibarren

Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta bi ahalduntze saio izango dira irailean emakumeentzako. 17an, hazkunde pertsonala irakurketa bidez nola landu daitekeen irakatsiko dute, eta 24koa, *Ahizpatasuna gure armarik onena* izenburupean egingo dena, hausnarketa saioa izango da. Loredi Salegik gidatuko ditu saioak kultur etxean. Doakoak eta irekiak izan arren, aurrez izena eman behar da, Herritarren Arreta zerbitzura deituta (943 741 050).

### Gizonezkoentzako elkarbizitza tailerra Upai Goiti baserrian

Zarauzko Toka gizonezkoen taldeak antolatu eta lagunduta, gizonezkoentzako tailerra izango da irailaren 14tik 16ra bitartean Sallobenteko Upai Goiti baserrian. Gizonezkoek gorputza, harremanak eta sexualitatea gaiak landuko dituzte, Vicente Dominguez coachak gidatutako saioan. 20 lagunentzako lekua egongo da, eta asteburuko egonaldiak 150 euro balio ditu. Izena emateko: 627 117 819 (Izan).

## Jaietan Maalan izandako eraso sexista salatu zuten herritarrek



Gizonezko batek hitzez eta fisikoki eraso zion emakume bati Maalako Gune Askean, sanbartolomeetako Gazteen Egunean, goizaldeko laurak inguruan. Gertatutakoa salatzen eta biktimari babesa adierazteko, abuztuaren 30ean ordu laurdeneko elkarretaratze isila egin zuten Kalegoen plazan herritarrek, Narrutsik taldearen deiari erantzunez, eta deiarekin bat egin zuten Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak. Erasozkoen aurkako protokoloa martxan jarri zuen Narrutsik taldeak, eta emakumeen aurkako indarkeriari erantzun publikoa emateko protokolo instituzionala Udalak. Erasotuari babes osoa eskaintzea izan da talde, erakunde eta herritarren asmo nagusia.



Makillak kuadrilla abuztuaren 27ko ospakizunean.

## Txiki Egunean, Makillak kuadrilla handi

**Egiazko lagunak makila eta txakurra omen dira, baina Makillak izenaren baitan gordetzen dena Elgoibarko lagun kuadrilla bat da. Aurten urte berezia da beraiantzat, eta bereziak, oso bereziak izan dira haiantzat amaitu berri diren sanbartolomeak. Izan ere, orain dela 50 bat urte argazkiko andra-gizonak batu eta Txiki Egunez elkarrekin irtetzen hasi ziren. Horregatik, abuztuaren 27an, Txiki Egunean, talde-argazkia atera zuten plazan. Txiki Eguneko ospakizunez eta Makillak kuadrillaren nondik norakoez jardun gara haiekin, eta elkarrizketan, barre handiak egin dituzte mahaira batutako lagunek. Bideoa: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)**

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Jai-giroak elkartzen ditu Makillak kuadrillakoak eta batez ere Txiki Egunean. Aurten bete dituzte 50 urte lehenengoz Txiki Egunean elkartu eta taldean irteten hasi zirela; neska eta mutil, denak elkarrekin, garai hartan ohikoa ez bazen ere. Gogoan dute 1968. urtean irten zirela lehenengoz taldean, baina nola elkar ezagutu zuten ez dute horren garbi elkarrizketarako batu diren lagunek. Kuadrillako batek esan du neskek Sigmako jaietan dantza egitera joan zirela eta handik bueltan, plazan elkartu zirela gaur kuadrillako dituzten mutilekin. "Orain gure kuadrillakoak direnak ez zeuden Sigman behintzat, eta gainera guretzat hauek "umeak" ziren, guk pixka bat zaharragoak nahi izaten genituelako dantzarako. Baina han aspertu ginenean plaza aldera etorri eta Bolatoliko parkean aurkitu genituen eta hantxe berbetan hasi eta gaur arte!". Hala entzuna dio Eloisa Zubiaurrek lagunari. Hantxe izan zuten lehen harremana, eta gerora, Bandak plazan eskaintzen zuten dantzaldian, sendotu zuten harreman hori, pixkanaka.

Batez beste 14 urte zituzten lehen aldiz elkartu ziren hartan eta gaztetxoegiak ziren taberna batera sartzeko, beraz, ziurrekin ogitartekoren bat jango zuten elkarrekin, urte batzuk gerorago hasi zirelako Txiki Egunez elkarrekin bazkaltzen. Ez zen ohikoa sasoi hartan neska eta mutilak kuadrillan elkarrekin ibiltzea eta Jose Inazio Jauregik ondo gogoan du bera baino lau urte zaharragoa zen lehengusu batek nola egin zion haserre Txiki Egunean neskekin

joan zirelako. "Orduan, Txiki Egunean kuadrillan irtetea mutilen gauza zen gehienek ustez", esan du Mari Fran Juaristik.

Besteen esanak kontuan hartu gabe, 50 urtez bizi izan dute Txiki Eguna kuadrillan eta bestelako ospakizunak ere egin izan dituzte. Jose Luis Mujikak gogoratu du jaietako umeen egun batez, ordurako ume izan ez arren, kuadrillako gizonezkoak majorette jantzita irten zirela: "Majorette batzuk etorri ziren Frantziatik eta haiek imitatuz gonak jantzita irten ginen herrian. Kalejiran ibili ginen, eta gero dantzan jardun ginen, plazako kioskoan". 2003an, berriz, Expresion Sonorak plazan azken kontzertua eman zuenean, Iron Maiden, Pantera, Mago de Oz eta antzekoen kamiseta beltzak jantzita ibili ziren plazan. "Kontzertu ostean Maala aldera gerturatu ginenean, hura lotsa pasatu zuten gure seme-alabek, gaztetxoak ziren-eta orduan", gogoratu dute.

Ospakizunak, baina, ez dira aurtengo jaietarako mugatu. 1988an, Idotorben elkartu ziren kuadrillakoak eta haien senitar-tekoak. "Kuadrillan badira senar-emazteak, baina beste batzuen senarrak edo emazteak ez dira kuadrillakoak eta pegasos esaten diegu, beti ere bromatan. Baina behin, San Pedroko ospakizun hura egin genuenean, hala izendatu zituzten *Egin* egunkarian eta orduan kontuak", esan du artikulua gordeta daukan Jose Luis Mujikak. Mari Fran Juaristik dio kuadrillakoekin ezkondu-tako horiek lekuz kanpo ere sentitzen direla batzuetan eurek urteak atzera egin



eta sasoi bateko kontuak gogora ekarzen hasten direnean. Eloisak garbi dauka: "senar-emazte izan ala ez, Makillakeko neskontzat kuadrillako mutilak gure mutilak izan dira beti eta ez ditzala inork berentzat hartu". Garai batean izan zen eibartarrekin dantza egin zutelako kuadrillatik "baztertu" zuten mutilik.



*Makillak kuadrillako hainbat lagun neskak eta mutilak elkartu ziren lehen Txiki Egunean, 1968an.*

## MEUDE ERDI

Aurtengo Txiki Egunean bete dute mende erdi elkarrekin irteten hasi zirenetik, eta urteurrena gogoratzeko hainbat jarduera egin dituzte. Gaztetan, Deban, hondartzako futbol txapelketan parte hartzen zuten eta hura gogoratuz aurtengo kuadrillako mutilek Debako hondartzan futbol partida jokatu dute. "Lehiaketatik kanpo, noski, gure adinean ez gaudelako inoren kontra aritzeko; pozik gaude, inor lesionatu ez zelako. Eta, jakina, partida ostean bazkaria egin genuen, eguna biribiltzeko", esan digu Mujikak.

Abuztuaren 27rako 50. urteurrenako zapi gorri bana eta eta txapelak prestatu zituzten. Horiiek jantzi, Bear Dana elkarrekin gosalduta eta gero eliza aurrean aurrekua dantzatu zien Aitor Asenjok. Urtemuga, baina, ezin zorianak abestia kantatu gabe amaitu. Mautixa txarangakoek jo zieten pieza. Ondoren, Mautixakoekin talde-argazkia egin, kuadrillan urteotan hildakoak gogoratu eta aurtengorako propio sortu duten ereserkia abestu zuten. Kuadrillako kideek egin dute abestia: musika, Txomin Mujikak, eta hitzak, Jose Luis Mujikak.

## MAUITXA TXARANGAREN LEHEN PAUSOAK

Mautixa txaranga ezin zen Makillak kuadrillakoen urteurren

ekitaldian falta. Izan ere, Mautixa bera Makillak kuadrillako batzuek sortutakoa da, Mautixa izena geroago hartu bazuen ere. Izena bera ere Makillak izan beharko luke gaurko txarangak, kuadrillako hainbaten ustez. "Gure kuadrillako hainbat mutil hasi ziren txarangarekin (Luis eta Victor Zubiaurre, Txomin Mujika, Ricardo Mujika, Juan Luis Arregi, Ricardo Gorriti eta Jose Alberto Ansola) eta gerora sartu ziren herriko beste musikari batzuk. Zuzendaria Jose Alberto Ansola Mautixa zen, eta haren izena hartu zuen txarangak, norbaitek halaxe esango zuelako".

Eloisa Zubiaurrek eta Mari Fran Juaristik gogoan dute txaranga lehen aldiz Txiki Egunean irteten zenean, euren kuadrillako alkandorak jantzita ibili zirela denak kalean, bai txarangakideak eta baita gainerako kuadrillako lagunak. Ondo gogoan dute, era berean, kasaka haiek nola egin zituzten ere. "Ez geneukan apenas dirurik eta merkealdian erosi genuen lorehun oihala Eibarko Galerias Preciadosen. Kuadrillako baten izeba jostunak moztu zuen eta gero bakoitzak bere etxean josi. Txiki Egunean etxera joan ginenean lore guztiak gorputzean itsatsita geneuzkela konturatu ginen eta garbitutakoan kasakak kolorea galdu zutela, baina...".

Kasakak galdu zuten kolorea, baina Makillak kuadrillakoen ez dute umore eta kanturako grinik galdu. Urte askoan halaxe jarraitzeko asmoa dute gainera, eta 75. urteurrena bete zain egon gabe, gauza diren artean, ospatzen jarraitzeko gogoan agertu dute. "Baina hemendik aurrera ospakizunen arteko denbora tarteari laburragoak izan behar dira, gehienez bost urtekoak", bota du Mari Fran Juaristik. Makillak taldeak ez du sortu zeneko izaera galdu nahi eta ez du ematen galduko duenik gainera.



*1970ko abuztuaren 25ean txarangakoak eta kuadrillakoak lorehun kasaka jantzita.*

# Pinuak gaixotu dira

**Udazkena iritsi aurretik kolore arrea hartu dute gure inguruko pinudiek. Gorritu dira udazkenean ere gorritzen ez direnak, eta suak pasatuta moduan daude gero eta mendi sail handiagoak. Gaixo daude Insignis pinuak, 'Lecanosticta acicola' onddoak jota, eta gaur gaurkoz, gaitzak ez du sendabiderik. Pinadiak jo beste erremediorik ez dute baserritarrek, eta kezkatuta eta haserre daude, pinua bota ostean zer sartu ere ez dutelako garbi. Fama onegirik izan ez arren, eukaliptoak sartzan hasi dira zenbait basozale gure inguruan. Bideoa ikusteko: [www.barren.eus](http://www.barren.eus).**

- AINARA ARGOITIA -

Gipuzkoa eta Bizkaiko pinudiak gaixorik daude, eta inguru kaltetuenak Azpeitia eta Errezil ingurua eta Mendaro direla esan berri du Fernando Opakua Gipuzkoako basogintza elkarteko zuzendari teknikoak. *Pinus radiata* edo Insignis pinua da gaixotu eta gorritu dena, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko gure mendietan espezierik zabalduena den arbola hain zuzen ere (%33). Edo nahiago bada, basogintza-egurgintza sektorearentzako espezierik errentagarriena dena da hiltzorian dagoena, urtetan gure baserritarrentzat ekonomia-iturri nagusia izan dena. Datu bat: gaur egun, Insignis pinua eta eukaliptoak dira gehien aprobetxatzen diren espezieak Euskal Herrian (mozteen %80 eta %13, hurrenez hurren). Gaitza izugarri azkar ari da zabaltzen eta esan barik doa baserritarrek kezkatuta daudela oso. Baserritarrek diogu, Bizkaiko eta Gipuzkoako mendien %80 jabetza pribatukoak direlako eta baserritarrek direlako jabe horietako asko, Euskadiko Egurraren Elkarteak emandako datuen arabera. Horregatik jo dugu haiengana beste inorengana baino lehen, lehenaz gain-erazik ez zutelako lehen ere- asko ilundu zaielako etorkizuna. Baina ez dira kaltetu bakarrik, jakina, asko direlako basogintza-egurgintza sektoretik bizi direnak gurean: basogintzan dihardutenak, zerretakoak, papergintzakoak, altzarigintzakoak... Pinu egurrak diru asko mugitzen du, eta askori ematen die jaten. Datu eguneratutik ez dago, baina kalkulatu da egurretarako 10.000 tona bat egur mugitzen dela hemen egunero (500.000 bat euro), eta papererako 2.500 bat tona.



**Eibar, Soraluze, Elgoibar eta Mendaroko basozaina da Manuel Olariaga, eta egunotan, inoiz baino lanpetuago dabil. Gaur ere beteta du itxarongela. Kezkatuta jaten zaizkio baserritarrek, gaitzak joto pinudiekin zer egin ez dakitela.**

## ▶ MANUEL OLARIAGA BASOZAINA

### ◆ Zerk gorritu ditu pinudiak?

*Lecanosticta acicola* onddoak sortutako gaitzak. Onddoak esporea bidez zabaltzen da, eta pinu gorriari erasaten dio; tomateari-eta eragiten dion gorrinaren antzeko gaitza da, pinua hiltzen duena. Ameriketatik etorritako gaitza da; mundu globalizatu honen ondorio zuzena. Iritsi eta bat ez zuen indar handirik hartu, baina, orain, European dabilen egurtrafikoarekin, bazter guztietara zabaldu da, Asiako liztorraren antzera (*Vespa velutina*). Hemen, Gipuzkoan, Azpeitia, Errezil eta Beizama inguruan bistatu zen gaitza, baina orduan ez zitzaion hainbesteko garrantzirik eman, eta orain, gain hartu

digu. Hasieran katarroa zena pneumonia bihurtu da, eta orain kontuak! Urtebeteren barruan beldurgarri zabaldu da. Olatua bezala dator. Etsigarria da. Orain bi-hiru urte prozesionaria edo pinu-beldarrez beteta zeuden gure pinuak, baina orain halako beldar-zaku bat ikusten baduzu, egon zaitezke pozik, horrek esan nahi duelako pinu hori oraindik sano dagoela, beldar horrek hosto berdea jaten duelako eta haren kontrako botikak baditugulako.

### ◆ Zerk eragin du gaitza horren azkar zabaltzea?

Hemen gertatu dena da onddo hori zabaltzeko baldintza ezin hobek izan ditugula: hezetasun handia eta tenperatura



## “Mundu globalizatu honen ondorio zuzena da gaitz hau”

egokiak: 30 bat gradu bueltakoak egunez eta 18-20 gradukoak gabez. Horregatik nabarmendu da orain hau, udan. Udaberrian, susperraldi bat zetorrela ere pentsatu zuten askok, pinua freskatzen ari zela, baina landarearen berezko zikloaren eraginez izan zen hori, ez beste ezergatik. Hasieran esaten zen haranetan, leku baxuetan, hartzen zuela indar handiena, baina orain ikusi da leku eguteretan ere berdin-berdin zabaltzen dela. Onddoak esporak bidez ugaltzen da eta esporak bi tipotakoak dira: asexualak edo sexualak. Asexualak masa likatsu batekin botatzen ditu onddoak eta ez dira urrutira joaten, baina leku epeletan eta eguteretan, ond-

doak esporak sexualak botatzen ditu eta horiek edonora eraman ditzake haizeak.

♦ **Kaltetutako pinudiak bota beste erremediorik ez ei dago. Behintzat ematen du botatakoa eramango duenik badela orain momentuan, ala?**

Bai, eta gaitzerdi, merkatua egurra hartu ezinda gelditzen den eguna azkena izan daitekeelako hemen. Hemendik dozena erdi bat urtera ikusi nahi nuke nola dagoen hau! Gaitz honek pinuaren azikulei eragiten die, hostoei. Hostoa galtzen joaten da pinua, eta historik gabe, landarea ito egiten da; hil. Eta hori gertatu aurretik saldu behar da egurra, duen balioa galdu aurretik. Arriagan, Azkarate aldera hartu

eta ezkerretara begiratu gero, konturatu zara orain urtebeteko paisajeak eta gaurkoak ez dutela zerikusirik; basoaren erdia pasa kendu egin dute, eta urtea amaizterako inguru hori gorri geldituko da, pinurik gabe.

♦ **Laguntzak ere badaude orain momentuan, baina zertarako eta zenbatekoak?**

Bi tipotako laguntzak daude. Batetik, gaitz honek kaltetutako pinu jabeek izan dituzten galerak arintzeko laguntzak daude, 5-30 urte bitarteko pinuak dituztenentzakoak. Pinuaren adinaren arabera, pinu jabeak 3.000 euro arteko laguntza jaso dezake, beti ere sail horretan beste

zerbait landatzeko baldintzarekin. Bizi zikloaren erdia bete duten pinuak dituztenek (12-16 bat urtekoak) jasotzen ari dira diru gehien, hektareako 3.000 euro, baina adin hortatik gora nahiz beherako pinu jabeentzako diru-laguntzak apalduz doaz, hektareako 1.500 euroraino. Baina, jakina, aurrekontuetan diru-kopuru bat zehaztuta dago horretarako, eta garbi ikusten dugu zaku horretan ez dagoela denentzako lain. Horrez gain, landaketarako laguntzak ere badaude, beti ere landatuko den hori eukaliptoak ez izatekotan. Eukaliptoak landatu nahi duenak ez dauka diru-laguntza hori jasotzerik, nahiz egon zen sasoi bat eukaliptoak sartzeari ere lagundu zena diruz hemen.

#### ◆ **Kalean ez du fama onik eukaliptoak eta itxuraz administrazioak ere ez du nahi. Hain txarra al da?**

Lurra jaten duela esaten da, baina azkar hazten den landareak beti du hori. Landare guztiak xurgatzen dute hemen,

baita letxugak ere. Ortuak gertatzen den gauza bera gertatzen da basoan ere, eta lurra behar izaten du deskantsua ere. Eukaliptoak du ona aldaketa batetik hiru boatealdi ematen dituela: hau da, eukaliptoak landatu, moztu eta berak sortzen ditu berriro lakatzak, guk ezer egin beharrik gabe. Eman egiten du azkar eukaliptoak eta hori du ona, azkar datorren landareak lan gutxiago ematen duelako, inguruan hazten diren ote, sasi eta gainerakoei azkar hartzen dielako gaina. Gerra daukagu, baina. Eukaliptoak aurkari asko ditu, eta hemen esan behar duguna da eukaliptoak bere alde onak eta txarrak dituela, baina basoa zaintzen duenak ere bizi behar duela. Baserritarrek lana egingo lukete gustura mendian, baina pozen bat izatekotan bueltan, berak ez bada sikiera bere ondorengoek zerbait jasotzekotan. Hemen alferrik jardutea ez zaio inori gustatzen!. Baserritarrak zahartu dira eta lanerako pozik ez dute. Zer nahi

du ba jendeak? Garbi izan behar dugu gauza bat: basoak ematen badu, jabeak zainduko duela eta lurra inork ez duela maite baserritarrek bezainbat, baina jan ere egunero jan behar dutela.

#### ◆ **Eukaliptoak espezie sukoia dela entzun eta irakurri dugu. Beharbada horregatik ez du nahi administrazioak?**

Bai, eukaliptoak espezie sukoia da, baina bestela ere, gaur basoak dauden moduan sua piztuko balitz, azkar asko zabalduko litzateke sua, zenbat eta erregai gehiago orduan eta azkarrago zabalzen delako. Pinua ere zikina zela esaten zen sasoi batean, baina lehen, orain 40 bat urte, pinudiak garbi-garbi izaten ziren, dena aprobetxatzen zelako. Garaioa behie azpiak egiteko erabiltzen zen, sasiak moztien ziren landarea haz zedin... Baina gaur, derrigorrean egin behar dena ere ez da egiten, hein handi batean pozik ez dagoelako. Gaur ere sua piztuko balitz guk nahi baino arinago zabalduko litzateke.

## BASERRITARREN EGONEZINA

Insignis pinuak garrantzi handia du gure basoetan eta gure ekonomian, nahiz azkeneko hamar urteotan "nekez aberastuko zen pinu-jabe txikirik". Edozelan ere, eman pinuak eman du gehien hemen urteetan, eta egon ere, horrexegatik dago horrenbeste gure bueltan. Hemen bertoko arbola espezieen aldean azkar hazten da pinua eta errentagarriena ere bera izan da, errentagarritasuna dirutan neurtuz gero behinik behin. Etekin aterako bazaio, baina, lana ere gogotik egin behar da pinudian, pinua landatzen den lekuan zikin asko hazten delako. Sasia, otea, garoa... pinu-landara baino azkarrago hazten dira, eta garbitu ezean, ilunpera kondentzen dute pinua, heriotz geldora. "Landatzen denetik lehenengo hamabost bat urtean lan handia ematen du. Pinu-landaren bueltak garbitu; haizeak, elurra eta bestelako aldagaiek behea jotzeraino okertzen dituzten landare gazteak estakekin edo tentetu; hazten doan ahala landareari berari beheko adarrak kendu; bakandu eta entresakak egin... Lanordu asko, bueltan jasotzen dena jasotzeko. Lehengo pinuen diruak mendi-bideak egiten eta baserriak konpontzen joan zitzaizkigun hemen. Poltsikotara ez zitzaigun askorik ailegatu", esan du Iñaki Elortza Kortaberrik. Bera izango da Mendaron baso sail gehien dituen, baina gaitzak hemezortzi bat hektarea gorritu dizkio eta egin berri ditu lau bat hektarea baso kentzeko paperak. Etsita igartzen zaio.

Kalean lan egindakoa da Iñaki, gaur baserritik bizi bada ere. Aita gaixotu zitzaionean laga zuen tailerreko lana baserriaren ar-

dura hartzeko, baina ordutik majo aldatu dira gauzak. "Gaur egun enpresarik eskasenetako baldintzetan ere ezin du bizi 40 hektarea-baso dituen batek. Pinutik dirua ateratzeko lur sail ikaragarriak izan behar dira eta halako lur jaberik hemen ez dago". Kontuak atera ditu. Aita gaixotu zitzaionean zortzi pezetatan erosi zuen pinu-landarea Olatzen, eta orain, 25 zentimotan erosi du. Lehen, krisia etorri aurretik, metro kubiko pinu-egurratik 100 bat euro jaso zituzten baserritarrek; orain, berriz, primerako metro kubiko egurratik, "kasurik onenean", 50 bat euro ordaintzen die erosleak, eta 45 bat euro ematen diete pittin bat kalitate apalagoko egurratik. Iazko neguan bota zuen hiru bat hektareako lur-saila eta hura garbitu eta berriro landareak sartzeko, bi baso-langile ditu hartuta orain bi egunerako, aldakako ebakuntza egin berrikan ez delako gauza lan hori berak egiteko. Eta jakina, haiei ere ordaindu egin behar die; "eguneko 120 eurona". "Gaixo hau etorri da orain, baina hau etorri ez balitz ere, hemen ez zegoen plan onik. Eta mendian horrenbeste ordu eman eta horrenbeste neke hartu eta bueltan ezer jaso behar ez badugu, hobe dena dagoenetan laga", gehitu du.

Lau hektarea botatzeko paperak egin berri ditu Kortaberrik, baina ohartarazi du eroslea topatzen ere ez dagoela beti erraza, ohiko erosleek urtebeterako egurra erosita dutelako dagoeneko eta egurra ezin delako denbora luzez metatu, "ez aurretik eta ezta manipulatu ondorenean ere". Baserritarrek, baina, presa dute.

teke hemen. Hori bai, ez dezagun ahaztu sute gehienak geure arduragabekeriz pizten direla, hemen eta gainerako bazter guztietan.

♦ **Galduta daude baserritarrak, zer sartu ez dakitela. Zer esaten diezu?**

Normala. Begira, duela ehun bat urte sartu zen hemen Insignis pinua eta tarte honetan lan asko sortu du eta aho askori eman die jaten. Pinuagatik daude tente gaur baserri asko hemen. Jendeak uste ez arren, baserriak bizirauteko bakarrik eman du hemen beti. Jateko lain bakarrik ematen du baserriak, eta hori da orain eta zen lehen. Gipuzkoa eta Bizkaiko lur aldapak dauden eskasena dira nekazaritzarako, ia dena eskuz egin behar delako, eta klima oso hezea da. Lur sailak ere oso txikiak dira hemen; minifundioa da gurea. Batez beste, baserriak 7 bat hektareakoak dira Gipuzkoan, eta historikoki, baserrian gelditu den maiorazgoa jateko adina egin ezinda ibili da hemen. Etxetik kanpora ir-

teten zirenek egin dute aurrera hemen, eta Euskal Herriko despentsa Nafarroa izan da beti. Nekazaritza derrigorrean egin da hemen, besterik ez zegoelako, baina ez behintzat Euskal Herriko lurra egokiak direlako horretarako, ez behintzat Gipuzkoa eta Bizkaikoak. Eta orain, zer? Orain, bat-batean, goitik behera apurto zaigu gaztelua. Demagogia pixkat eginda erantzun erraza du zure galderak: pinua ez den edozer landa zenezake. Baina zer da pinua bezain errentagarri?

♦ **Dirutza handia mugitzen du egurrak gurean. Baserritarrak aipatu ditugu, baina nago ez ote dagoen ekonomia oso bat arriskuan.**

Arriskuan edo galdera ikur handi baten azpian bai behintzat. Epe ertainera arazoa izango dugu hemen, latza. Egurraren industriak ez du etorkizun argirik, Insignisaren merkaturia amaitzera doalako, ikatzarena amaitu zen bezalaxe. Tratamendu fitosanitario esperimentalak egiten ari dira ikerketa

zentroetan. Gaitzarekiko erresistentea den landarea lortu nahian ari dira laborategietan, baina... Egunero etortzen zaizkit niri bulegora baserritarrak nire ahotik zerbait topatu dutela entzun nahian, baina gezurretan ariko nintzateke hori laster ikusiko dugula esango banu. Amets bat baino ez da hori momentuz. Norbere burua ito gabe, baina ahal den arinen mugitzeko esaten diet nik denei, mugitzeko eta botatzeko pinua balioa daukan bitartean.

♦ **Zein da hona etortzen direnen kezka nagusia?**

Ikaragarri. Kezka nagusia? Hemen esan ditugunak. Basoak bota beste irtenbiderik ez dutela ulertu dute, baina ondorenak kezkatzen ditu. Aipatzen dizkiegu Insignisa ez diren beste espezie batzuk, baina jendeak ez ditu ezagutzen eta dena da kezka. *Cryptomeria japonica* koniferoa, eukalipto eta halakoak landatzen ari dira.



*Iñaki Elortza*



*Prudentzio Izagirre*



*Miguel Juaristi*

Ahalbait arinen saldu nahi dituzte pinudiak, gaitzak arbolen hostoak gorritu baditu ere, momentuz egurra saltzeko moduan dagoelako, baina laster hori ere ez. Hala, pinudi kaltetuak botatzen ari dira basozaleak, Gipuzkoako Foru Aldundia ematen ari den diru-laguntzak baliatuta.

Pinuen adinaren arabera laguntzak ematen ditu Foru Aldundiak, baina diru hori jasotzeko baserritarra derrigortuta dago botatuko ordez beste arbola batzuk landatzera sail horretan, eta gehienek hor ikusten dute arazoa. "Zer sartu ez dakigula gaude, eta jakina erabaki egin behar dugu, sartzeko errazen eta merkeen pinua bota berritan egoten delako, garbien orduan egoten delako. Hori da hemen arazo handiena orain. Garbi dago Insignis pinurik ezin dugula sartu, baina zein beste aukera daukagu? Eukalipto aitatzten dute batzuek, baina eskasa ei da mendiarentzat. Dena lehortzen ei du eta zikina ere bada", dio Elgoibarko Ubai-

Txiki baserriko Prudentzio Izagirrek. Pinua bera ere ez da denen begiko, jakina, eta pinuzaleen artean bada halakoren batek/batzuek gaitza apropos zabaldu duela uste duenik ere. "Bai, neuk ere entzun dut abionetaren kontua, baina ez dut horretan sinisten. Pinua zikina denik ere ez dut uste. Guk onddo ederrak mordoa hartu ditugu pinadian. Espezie garbiena ere ez da, baina ingurua garbi zainduz gero, pinuak beti ematen du, garbiketa lanak norberak egiten baditu behintzat. Sasoi batean, baserrian obraren bat egin behar zenean baserritarrak beti zuen pinua lagun. Onddo ederrak ere jaso izan ditugu guk pinudian", gehitu du Izagirrek. Aittola Zaharreko semea da bera eta Ubai-Txikira ezkondu berritan etxe atarian sartu zuen arbolari begira ari da. "44 bat urte ditu. Ederra zer dago ba! Horri begira egon daiteke, baina begiratu Morkaiko aldera edo Karakate aldera, edo Azkarate aldera nahiago baduzu. Tristura ematen du horrek", goibeldu da.

Lau-bost urtean bi aldiz balio handiagoa izango luketen 29 bat urteko pinuak eta lau bat urteko pinu gazteak ditu, gaitzak jota denak. Etxera bidean egunero ikusten ditu onddoak kaltetutako pinu gazteak errepidearen bi aldeetara. "Horrenbeste lan eginda, eta orain ez daukat nik hor ezer jasotzerik. Lana besterik ez berriro. Bost bat urtean ez da hemen pinurik izango. Hiru urte aurretik jarriko da Morkaikoko gurutzea Elgoibartik ikusteko moduan".

Antzeko ikusmira dute Arriaga auzoan ere. Begiratzen duen lekura begiratuta, gorri ikusten ditu bazterrak Lizundia-Txabolako Miguel Juaristik. "Arraria ematen du honek". Baserritarrek "galduta" daudela dio, informaziorik gabe eta "gorrinaren trazako" gaitza zerk sortzen duen igarri ezinda. "Inork ez digu irtenbiderik ematen. Lehen geneukan erraza, eta orain hau!". Pinuak aurrez ere beste gaitz batzuk izan dituela oroitu du, baina honek bezala hiltzera eraman duenik ez. Hau gogorra da gero! Duela lau bat hilabete berdetzera-edo egin zuten, baina orain, lehen baino gorriago daude denak. Bota bai, baina zer sartu? Eukaliptoak?"

## EUKALIPTOA EZTABAIDAGAI

Irten du eztabaida askotarako ematen duen landarearen ize-nak. Aldekoak eta kontrakoak ditu. Kortaberri Nitens eukalipto-landara sartzen ari da iaz kendutako baso zatian. "Nik ez dakit onena den, baina ematekotan honek ematen du zerbait. Azkar hazten da, 13 bat urtera jo daiteke, jotako denak balio du, izotz beltza etorrita ere aurrera egiten du, ez du pinuak beste lanik eskatzen eta urte guztian sartu daiteke, eta ez pinua moduan neguan bakarrik; hori erraztasun handia da lanerako. Txarra dela? Ez dakit ba nik. Arrazoi sendoagoak beharko nituzke kontra egiteko. Eukaliptoan dauka esperantza jarrita. "Eukaliptoan eta jubilazioan". Kortaberri lanean ari den lekutik gertu garbi ikus daiteke eukaliptoari denek aitortzen dioten alde on hori. Mendi bideaz gaineko zatian, izeia sartu zuten orain lau urte, eta azpiko aldera bi urteko eukalipto arbolak daude. Belaunetik beherako altuera dute izeiek eta pare bat metro izango dute eukaliptoek.

Eukaliptoaren alde egin du Santi Uzuriaga ere urtetan basogintzan jardundakoak etxeko sailetan, eta entzun behar izan du horregatik. Sartu berritan, ez zitzaiola lar gustatzen esanez joan zitzaion auzorik hurbilena. "85 bat urteko gizona da, baserrian jaio, hazi eta bizi izan dena beti eta halaxe esan zidan: 'Hi, Santi, ez jatak ba horixe askorik gustatzen?' Eta erantzun egin nion, kargu hartzeko barik jakitze aldera, nik ez daukadalako ez alde ez kontra egiteko motiborik: 'Zenbat ikusi dok ba hik hemen?'. Mallabin, gure parajeon, lau bat hektarea eukalipto ez dira egongo! Pentsa noraino sartuta daukagun hemen eukaliptoaren kontrako *run-runa*, administrazioko goiko instantziek zabal-dutakoa. Eukaliptoak ura xurgatu eta lurra pobretzen ei du, baina landare denek pobretzen dute lurra eta horretarako sortu ditugu

ongarriak. Insignis sailak ere ongarritu behar izan ditugu eta ez da tragediarik egin. 'Eukaliptoak erreto erretzen da'. Ez, eukaliptoak erretzen da, beste denen moduan. Hemen, 89an sute handiak izan zirenean, suak harrapatu zuen dena erre zuen, sua zabal-tzeko baldintza on asko batu zirelako". Mahai baten bueltan jarri eta eukaliptoaren gainean "zintzo" berba egiteko beharra ikusten du Uzuriagak, baina errentagarritasun ekonomikoaren faktorea hasieratik mahai gainean jarrita. "Ez du balio tontokeriak esateak".

"Ekonomiak mugitzen du mundua eta mendi kontuetan zergatik laga behar da beti alde batera?", bota du. Mendia zertarako nahi den galderari zintzo erantzun behar zaiola dio eta gaur arte moduan irizpide ekonomikoen arabera erantzunda, argi du eukalipto aukera ona dela. "Ez da aukera bakarra izango, baina bai aukera on bat. Gaur arte ez da planteatu ere egin hemen, piñoi finkora ibili garelako beti. Gauza bat izan behar dugu argi. Ekonomikoki basoa errentagarria ez bada, zikina geldituko da. Eta hori ez da mehatxua, eta ezta mendekua ere; egia baizik". Garbi du pinuak dirua eman duelako daudela "gehiago edo gutxiago" mendiak garbi. "Mendia denona da' eta halakoak entzuten ditugu sarri, baina hemen mendiak jabeak ditu. Udaletxea ere denona da, baina itxi egiten dute, ezta? Bada, horixe. Mendiak, gehiago edo gutxiago garbi daude, baserritarrek garbitu dituztelako. Eta ez noa ni dominarik jartzera paparrean, dirua jaso dugulako garbitu ditugulako, baina aizu, inor ez doa hemen sasirik ebagitzera basoak dirurik ematen ez badu e! Baserritarra ere gimnasia arinago joango litzateke gaur, desbrozadora hartuta mendira baino". Haserre dago Uzuriaga. Arazoa larria dela dio, baina ez du administrazioa larrituta ikusten. Hemen bertako espezieen alde egitea ez du txarto ikusten, baina "diru-laguntzekin bat edo beste egitera behartzen jardutea", bai. "Pago sailak anekdotikoak izango dira hemen beti, kapritxozkoak. Eta bai, sartuko du nonork pegoa, eramango du administrazioak hori egitera diru-laguntzekin, baina ez dezala pentsa gero berak aginduko duenik sail horretan. Baserritarrek berea izango du saila erregistroan eta eskritoretan, baina han, agindu, Etxe Handiak aginduko du".

Haserre dago administrazioarekin, iruditzen zaiolako hein batean haren "meritua" dela hau. Esan du historikoki landara haztegiak izan direla Euskal Herrian eta baserritarrek landare onenak zituztenengana jo izan dutela erostera, harik eta genetikoki eraldatutako landareak iritsi ziren arte. "Etorri zen administrazioa eta esan zigun guk ez genekiela, abarka-galtzetan genbiltzala gu eta teknikoak eurek zituztela. Hobekuntza genetikoekin hasi ziren, eta joan ziren kanpora bila Txilera eta Zeelanda Berrira eta. Eta diru-laguntzak jasotzeko, euren landareak erosi behar izan genituen gero guk eta zabaldu ziren hemen ordura arte ezagutzen ez genituen gaitzak. Ez daukat hau argi demostratzeko modurik, baina bileretan esateko lotsarik ere ez".

**"Ekonomikoki ematen  
ez badu, zikinak  
geldituko dira basoak"**

## Jaia eta lehia giroa nahastuta Arriaga auzoan



**A**rriagako jaiak izan ziren joan zen asteburuan eta txapelketekin hasi zituzten jaiak. Ohitura dira txapel eta azeituna hezur lehiaketak eta aparkalekura gerturatutako gehienek hartu zuten parte. Gizonetzkoetan Casaresek irabazi zuen, txapela 23 metrora jaurtita, eta emakumezkoetan, berriz, Mari Carmen San Martin nagusitu zen, txapela 14 metrora botata. Oliba-hezur jaurtiketan, Aritz Telleriak eta Aitzol Urainek 12,42 metrora bota zuten hezurra, baina berdinketa hausteko saioa Urainek irabazi zuen; emakumezkoetan, berriz, Amaia Alonsok eraman zuen saria, hezurra 10,38 metrora jaurtita (irabazleak argazkian).

Zapatuan ere probek hartu zuten lekua Arriagan. Futbolinean, umeetan, Txabi eta Haritz Zubiaurrek irabazi zuten, eta nagusietan, Ekaitz Olaizola eta Iñigo Astigarragak. Toka-joan, Julen Mekolalde izan zen irabazlea umeetan, eta Aitor Osoro, helduetan. Musean, berriz, Manuel Salegik eta Jose Mari Zialtzetak osatutako bikotea gailendu zen. Tortilla lehiaketa ere antolatu zuten, eta Ainhoa Hermosak eta Ekaitz Olaizolak prestatu zuten epaimahaiaren ustez goxoena. Afaldu aurretik, asto proba ere egin zuten. Txibilter astoa aritu zen Jun eta lehertu giza proba taldearen aurka 480 kiloko harriarekin nork plaza gehiago egin. Astoak irabazi zuen, 66 plaza, zinta bat eta 5 metro eginda. Giza proba taldekoek 65 plaza, bi zinta eta 2,97 metro osatu zituzten.

Txapelketan baino jende gehiago batu zen jatorduetara. 100 lagun inguru elkartu ziren ostiraleko afarian eta beste horrenbeste bat zapatuko bazkarian. Dantza lehiaketan, Itziar Zarautz eta Ana Aldapa izan ziren onenak. Sariak ere zozkatu zituzten. Bidaia Ihintza Ugartetxearentzat izan da, eta jan eta edariz betetako orgatila, Iñigo Astigarragarentzako.

## Gune Askekoak pozik jaietako parte-hartzearekin

Maalako Gune Asketik San Bartolome jaien balorazio orokorra egin dute. Eraso sexista salatzeaz gain, jaiak erakutsitako alderdi ona azpimarratu dute. Jende dezente ibili dela jakinarazi dute, bereziki musika ikuskizunetan. Abuztuaren 23ko bazkarian 100 lagunetik gora elkartu ziren Maalan eta gazteen egunean 400etik gora Sigman. Aldarrikapenak ere izan du lekua Gune Askean eta natura, feminismoa eta presoen eta pentsioen gaiak azalerratu dituzte. Jaiak amaituta eskerak eman dizkiete txosnetan jardun duten 200 lagunei eta ekintzetan lagundu duten talde eta norbanakoei.

## Zabalik dago euskara ikasteko matrikulazio epea

Elgoibarko Udal Euskaltegian eta AEKn irailaren 26ra bitartean egongo da irekita izena emateko epea. Bestalde, diru laguntzei eta bekei buruzko informazioa euskaltegietan ezezik Udaleko Euskara Sailean ere jaso daiteke: 943 744 366 edo [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus).

## Izen-ematea irekita Ameikutz Musika Eskolan

Mendaroko Ameikutz Musika Eskolak jakinarazi du oraindik aukera dagoela musika eta instrumentu ikasketetarako izena emateko. Interesa dutenek musika eskolara bertara jo beharko dute.

## Umeen antzerki taldea sortzen ari dira Mendaron

HH4 eta HH5. mailetan hasiko diren ikasleentzat antzerki taldea sortu nahi dute Mendaron. Antzerkia, gorputz adierazpena eta psikomotrizitatean lantzea da helburua. Andrea Lopez da arduraduna eta izena emateko zenbaki honetara deitu behar da: 688 667 830.

## Mayi Mujikak hirugarren egin zuen Munduko Kopako Matterhorn Ultraks lasterketan

Udako oporraldia oparoa izan da Mayi Mujikarentzat. Hasteko, abuztuaren 5ean Castellonen jokatu zuten Cursa per Muntanya Vistabella lasterketan lortu zuen bosgarren postuari esker, mendi lasterketen Espainiako Kopako sailkapen nagusiko hirugarren postua eskuratu du. Jokatutako bost lasterketetako emaitzak kontuan hartuta, Sandra Sevillano bilbotarrak irabazi du Espainiako Kopa, 376 punturekin. Balearetako Bel Calero sailkatu da bigarren postuan (327 puntu) eta euskal selekzioa ordezkatu zuen Mayi Mujikak egin du hirugarren (300 puntu). Mediterraneoko mendietatik Alpeetara joan zen Mujika eta abuztuaren 24an Suitzako Matterhorn Ultraks lasterketan lehiatu zen, Munduko Skyrunner zirkuituko proba puntuagarrian. Virginia Perez gasteiztarra izan zen emakumezkorik azkarrena, eta Mujikak hirugarren postua lortu zuen 49 kilometro luze eta 3.600 metroko goranzko desnibela zuen lasterketan.



## Alcortak irabazi egin du San Bartolome txapelketan, eta galdu Kopan

Alcorta Forging Group Sanloko senior mutilen taldeak bi partida jokatu zituen ateburuan Olaizagan. San Bartolome Eskubalo Txapelketaren 16. ekitaldia jokatu zuten zapatuan. Etxeko taldeak Aviron Bayonnais taldea izan zuen aurkari eta elgoibartarrek 26-21 irabazi zieten lapurtarrei. Gojko Vucinicek entrenatutako mutilek lehen partida ofiziala jokatu zuten hurrengo egunean, domekan. Euskadiko Kopako estreina partida Donostiako Egia taldearen bisita jaso zuten elgoibartarrek, eta ezin izan zuten irabazi. Egiak 17-20 irabazi zuen partida. Alcortak zapatuan, irailaren 8an, jokatu du Kopako hurrengo partida, hori ere etxean. 13:00etan hasiko da Olaizaga kiroldegian Tolosaren aurka jokatu duten partida.

## Juan Kruz Gabilondo taldekide ohia omendu du Sevillako Betis futbol klubak



Betis taldeko ordezkarien bisita jaso zuen Juan Kruz Gabilondok Elgoibarko bere etxean. Urte gogor askoren ondoren, 1954. urtean Betis Espainiako Ligako Bigarren Mailara igo zuen hamaikakoan izan zen Gabilondo eta klubak eskerrak eman nahi izan dizkio orduan egindako guztiagatik. Rafael Gordillo Sevillako Betis futbol taldeko Kanpo Harremanetarako zuzendaria eta Manolo Rodriguez Real Betis Balompie Fundazioko kudeatzaileak oroigarri bat eta Betiseko kamiseta oparitu zizkieten Gabilondori, bere izena eta 90 zenbakiarekin. Zenbakiak Gabilondoren adinari egiten dio erreferentzia, maiatzaren 3an bete baitzituen 90 urte. Gabilondo 1953. urtean fitxatu zuen Betisek. Mirandes taldetik, eta berehala egin zuen lekua Betisen ohiko hamaikakoan. Atzelari aritu zen, eta sasoi hartan lau Mosketeroak izenez bataiatu zuten laukoteko bat izan zen. Gonzalez atezainak eta Portu eta Cifuentes hegalekoek osatzen zuten laukote hori elgoibartarrek batera.

## Olidenen idiak nagusi kintopekoen idi-dematan

Idi kintopekoen bosgarren txapelketa jokatu dute Sigmako probalekuan. Bederatzi idi-pare lehiatu ziren hiru jardunalditan: baxikuan, zapatuan eta astelehenean. 1.780 kiloko harriari tira egin behar zioten orduerdiko saioan. Plazara azkena irten zen Orioko Olidenen idi-pareak irabazi zuen txapelketa, bigarren urtez jarraian, eta iazko marka bera eginda: 49 plaza. Azkoitiko Isidro Erretegiko idi pareak egin zuen bigarren 47 plazako markarekin.



## Xakelari profesionalak eta afizionatuak batuko ditu Nazioarteko Danobat Irekiak, Elgoibarren



Arg.: Jabi Leon/Noticias de Gipuzkoa

Xakelarien erreferente izango da Elgoibar irailean, Nazioarteko I. Danobat Irekia eta Open Danobat Azpi 2200 xake txapelketei esker. Zubi Ondo Xake Taldeak antolatu ditu biak Danobat enpresaren, Elgoibarko Udalaren eta Kirol Patronatuaren laguntzarekin. Nazioarteko I. Danobat Irekia irailaren 22an eta 23an jokatuko dute IMHko Asmaola eraikinean. Antolatzaileek jakinarazi dute 45 xakelarik eman dutela izena dagoeneko eta izena eman duten xakeko maisu handien zenbait izen ere ezagutzera eman dituzte. Besteak beste, Alejandro Franco, Mikel Huerga, Jaime Santos, David Lariño... eta Espainiako Txapelkun berriak, Gabriel Del Riok, ere eman du izena. Txapelketa honen berezitasunetako bat da xakelari afizionatuek profesionalen aurka jokatu ahal izango dutela. Suitzar erara jokatuko dute torneoa, eta xakelari bakoitzak bederatzita txanda eta hogei minutu izango ditu partida osatzeko. Izena emateko azken eguna irailaren 15a izango da. Izena emateko edo edozein zalantza argitzeko [fidodidomik@hotmail.com](mailto:fidodidomik@hotmail.com) helbidera idatzi behar da edo 637 737 113 telefono zenbakira deitu edota whatsapp bidali. Open Danobat Elgoibar azpi 2200 txapelketa, berriz, irailaren 27an hasiko da. Federatutako xakelari entzako izango da eta Elgoibarko Kultur Etxean jokatu dituzte partidak. Irailaren 27an jokatu dute lehen txanda eta abenduaren 13an azkena izango den zazpigarren txanda.

## Elgoibar Sasoian zerbitzua berriro martxan

Abuztuko etenaldiaren ostean, berriro martxan da Elgoibar Sasoian Jarduera Fisikorako Orientazio Zerbitzua. Udal Kirol Patronatuak uztailean jarri zuen abian jarduera fisikoa era sistematizatuan eta kontrolatuan egiten laguntzeko. Erabiltzaileak jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesional tituludun baten babesa izango du. Orientatzaileak erabiltzailearen premiak eta zaletasunak kontuan hartuta, jarduera egokienak zein diren identifikatuko ditu, eta programa pertsonalizatu bat proposatuko dio. Horrez gainera, elkarrekin zehaztu dituzten helburuen betetze mailaren jarraipena egingo du. Javier Fernandez elgoibartarra da zerbitzuaren arduraduna eta [elgoibarsasoian@elgoibar.eus](mailto:elgoibarsasoian@elgoibar.eus) da berarekin harremanetan jartzeko e-posta helbidea. Telefonoz ere eska daitezke hitzordua: 943 744 415 (Olaizaga kiroldegia) eta 943 747 356 (Mintxeta).

## Neskak futbolera erakartzeko futbol campusa egin zuten



laz hasitako bidetik, neska futbolera erakartzeko Futbol Campusa antolatu dute aurten ere C.D. Elgoibarrek eta Realak elkarlanean, Udalaren laguntzarekin. Campusean parte hartu zuten 37 futbolari gazteek Realeko arduradunek gidatutako entrenamendu saioetan hartu zuten parte martitzenean, Mintxetan.

## Elgoibar Hiria eskubaloi txapelketa, asteburuan

Elgoibar Hiria eskubaloi txapelketa antolatu du Sanlok, Euskal Herrian harrobarekin lanean ari diren eskubaloi taldeen lanari ikusgarritasuna eman eta harrobiko lana sustatzeko. Kadete mutilen lau talde lehiatuko dira lehendabiziko edizioan: Sanlo (Elgoibar), Pulpo (Zumaia), Usurbil eta Anaitasuna (Iruñea). IMH kiroldegian jokatu dituzte partidak, zapatuan eta domekan. Elgoibarko taldeak bi partida jokatu ditu zapatuan, Pulporen aurka 10:00etan eta Anaitasunaren aurka 16:30ean. Domekan Usurbilen aurka jokatu du, 12:00etan.



**LANA.....**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanean aritzeko prest. Esperientzia handia daukat. Etxeko langile moduan jarduteko gertu. ☎ 631 975 260

Tabernan, sukaldari lanetan, aritzeko prest. Pertsona nagusiak zaintzen ere lan egiteko gertu. ☎ 659 513 578

Adinekoak zaintzeko prest. Etxeko langile modura ere jardungo nuke. ☎ 632 875 808

Garbiketan edo umeak zein adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Txakurrak paseatzera ateratzeko ere prest nago. Orduka aritzeko gertu. ☎ 675 965 130

Garbiketan edo umeak zaintzen egingo nuke lana. Orduka aritzeko prest. Txakurrak paseatzera ateratzeko gertu. ☎ 605 598 999

Adinekoen zaintzan lan egiteko prest. Etxeko langile moduan edo orduka ere aritzeko gertu. ☎ 661 814 324

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan gauzez edo aste bukaretan. ☎ 632 733 573

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan orduka. ☎ 688 842 791

Adinekoak eta umeak zaintzen nahiz garbiketan egingo nuke lan. Etxeko langile moduan, edo orduka (gauak ere bai). ☎ 631 891 709

45 urteko emakume elgoibartarra goizez etxeak garbitzeko prest. ☎ 636 223 142

Eskola partikularak ematen ditut, DBH 3,4 eta Batxilergo mailetako ikasleentzat. ☎ 618 245 057

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile aritzeko prest. ☎ 685 036 902

Adinekoak eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Etxeko langile aritzeko prest. ☎ 631 200 936

Adinekoak zaintzeko prest. Etxeko langile arituko nintzateke. ☎ 642 893 529

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. ☎ 632 326 679

**Eskaerak**

Elgoibarko denda baten lanerako neska euskalduna behar da. Interesatuak bidali kurrikuluma helbide honetara: *elgoibardenda@hotmail.com*

**ETXEBIZITZAK.....**

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 677 259 560

Etxebizitza alokagai Elgoibarko herrigunean. Hirugarren solairua da eta ez dago igogailurik. Urriaren 1etik aurrera sartzeko moduan. ☎ 688 650 060

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo inguruan. ☎ 669 339 529

**BESTELAKOAK.....**

San Bartolome jaietan belarritako bat galdu nuen Kalegoen plazatik Herriko Antzokira bidean. Norbaitek topatu badu eskertuko nioke telefono zenbaki hauetako batera deitzea. ☎ 943 531 648 / 669 916 148

Ume txiki baten bizikleta utzi genuen Kalegoen plazan irailaren 1ean eta bila joandakoan ez zegoen. Norbaitek jaso baldin badu deitu, mesedez. ☎ 679 624 518

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

IRAGARKIARI ERRETRATUA JARRIZ GERO, 6€ GEHIAGO ORDAINDU BEHAR DIRA.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€.

IRAGARKIARI ERRETRATUA JARRIZ GERO, 5€ GEHIAGO ORDAINDU BEHAR DIRA.

**administradores**

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Federación Vasca Administradores Locales Autónomos



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

Etaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Bere etxebizitzaren aldamenean berak soilik erabili dezakeen patio bat dauka nire komunitatean etxejabe batek eta gainera, aurreko jabeak irekitako sarrera zuzena dauka bertara. Jabe berriak, patioaren erabilera onartua duenez, beste ate bat ireki nahi du bere etxetik patiora. Jakin nahi nuke ate hori zabaldu dezakeen ala komunitatearen baimena behar duen horretarako. Irekitzeko baimena izanez gero, egokitze edo instalazio pribaturik egin ahal izango du patioan?**

Erabilera eksklusiborako eskubidea aitortua izanik, komunitateak errespetatu egin behar du. Beraz, jabeak, komunitatearen baimenik gabe egin ahal izango du ate berri horretatik zein aurrez irekitakotik sartu ahal izango da bere etxetik patiora.

Hala ere, kaltegarriak ez diren erabilerak baino ez dira onartuko. Izan ere, erabilera berea bakarrik izan arren elementu komuna da. Beraz, ezingo du, esaterako, erabilera indibidualerako galdara bat ipini, horrek elementu komunaren kanpoko itxura aldatzen baitu. Beraz, horretarako bizilagunen batzordearen baimena behar luke.

**Ondorioa: Komunitarioa den patioaren erabilera eksklusiborako baimena duen etxejabeak ezin izango du instalazio edo egokitzapen pribaturik egin komunitatearen baimenik gabe. Beraz, eman ahal izango dion erabilera izaeraren arabera onartutakoa da.**

**NORFO**



Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Julen**, zure 5. urtebetetzean. Mila kilo muxu aittitta, amona eta bereziki Gorkaren partetik.



Zorionak, **Naroa**, uztailearen 30ean urtetxo bat bete zenuelako. Mila muxu potolo etxekoan eta bereziki Gorkaren partetik.



Zorionak, **Hai-zea**, abuztuaren 20an 5 urte bete zenituelako. Etxeko guztien partetik, muxu handi bat.



Zorionak, **Oihane**, abuztuaren 10ean 5 urte bete zenituelako. Muxu asko denon partetik!



Zorionak, **Enaitz**, zortzigarren urtebetetzean. Muxu handi bat gurasoen, arreba June-aren eta lagunen partetik. Segi beti bezain jator!



Zorionak, **Danel!** Datorren ostegunean 6 urte! Muxu potolo bat etxekoan eta bereziki Izaro, Oihan eta Jareren partetik.



Zorionak, **Noa!** Gure printzesak 4 urte! Jarraitu zaren bezain polit izaten. Etxekoan eta batez ere Gorkaren partetik, muxu handi bat.



Zorionak, **Sare**, bihar zure urtebetetze eguna izango delako. 9.000 muxu guztien partetik!



Zorionak, **Julen**, 4 urte handi beteko dituzulako. Etxekoan partez muxu handi bat.



Zorionak, **Ireber** eta **Lea!** Dagoeneko 3 urte. Ondo-ondo pasatu zuen egunean.



Zorionak, **Sonia** eta **Jesus**. Ezkontza egunean oso une politak pasatu genituen. Aurrerantzean ere segi zoriontsu. Familiakoak eta lagunak.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira. BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



**LAGUNAK**  
colchonaria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)  
**943 744 457**



**%35 a**

**arteko deskontuak!!**

**KOLTXOIAREN HILABETEA**



## IKASBAI

### akademia

**667 261 248**  
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar  
[akademiaelgoibar@gmail.com](mailto:akademiaelgoibar@gmail.com)

- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA



ELGOIBAR - DEBA

**optika audio**

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)



**ARNETTE BETAURREKO OSOA**

**Zatoz probatzera!**  
**Galdetu baldintzak!**



**89€tik hasita**  
**P.V.P. gomendatua**

## 7 BARIXAKUA

**20:00** Meditazioa eta jardunaldia: *Burua isilduz*. Gidaria: Jose Cruz Igar-tua. Antolatzailea: Isiltasun Eskola. Kultur Etxeko sotoan.

## 9 DOMEKA

**11:00-14:30** Bigarren eskuko azoka. Mendaroko frontoian.

## 10 ASTELEHENA

**16:30** Ludotekaren irekiera. Ordutegia: astelehenetik barixakura, 16:30etik 19:30era.

## 12 EGUAZTENA

**17:00** Gaztelekuaren irekiera. Ordutegia: eguaztenetik domekara, 17:00etik 20:00etara.

**20:00** Meditazioa eta jardunaldia: *Burua isilduz*. Gidaria: Jose Cruz Igar-tua. Antolatzailea: Isiltasun Eskola. Kultur Etxeko sotoan.

## 13 EGUENA

**20:00** Meditazioa eta jardunaldia: *Burua isilduz*. Gidaria: Jose Cruz Igar-tua. Antolatzailea: Isiltasun Eskola. Kultur Etxeko sotoan.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00			Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
7 BARIXAKUA	8 ZAPATUA	9 DOMEKA	10 ASTELEHENA	11 MARTITZENA	12 EGUAZTENA	13 EGUENA	14 BARIXAKUA
Egunez <b>*Ibañez</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>Etxeberria</b>	Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>*Fernandez</b>
Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Etxeberri</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>
* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		<b>Urte guztian, gabez: 22:00-09:00</b> La Fuente - Sostoa kalea,10 (Eibar) 943 254 410	

**GSF41820X GRUNDIG ONTZI-GARBIGAILUA**



499€

45 zmkko zabalerara  
A++  
10 ZERBITZU INOX.

**WUQ28468ES BOSCH GARBIGAILUA**



479€

A+++ -30%  
8KG  
1400 r.p.m.  
Ecosilence motorra.  
Pausa funtzioa + garbitzeko carga

**55PUS6272/12 PHILIPS LED-A**

A+  
4K ULTRA HD  
SMART TV  
55"



599€

55"

Eskolara itzulera!



Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.




## *Dominga Leturiondo Alberdi*

2018ko uztailaren 17an hil zen, 87 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Elias Liz Rafael*

2018ko abuztuaren 14an hil zen, 84 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Tomas Barandiaran Arrizabalaga*

2018ko abuztuaren 6an hil zen, 78 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Maitasunezko iguzki batek gaduzka bere gerizan,  
o mement baten epearentzat Jainko banindaike izan!  
Mana nezoke iguzki horri nehoiz ez dadila etzan,  
zorionezko bizitza hunek azkenik izan ez dezan.***

Etxekoak



II. URTEURRENA

## *Lucia Larrañaga Idigoras*

2016ko abuztuaren 14an hil zen, 60 urte zituela.  
***Izan zarenagatik, erakutsi duzunagatik, ez zaitugu inoiz ahaztuko.  
Maite zaitugu.***

Etxekoak



VIII. URTEURRENA

## *Jose Luis Huidobro Torinos*

2010eko irailaren 4an hil zen, 58 urte zituela.

***Beti izango zaitugu gogoan.***

Emaztea, seme-alabak eta gainerako senideak.





Eire Vila

### Jone Olaizola



**K**anariar Uharteetan nenbilela, basoan zehar, oinak biluzturik zebilen neska batekin topo egin nuen. Kantuan zihoan pauso lasaiz hanka hutsean, lurrarekiko kontaktua sentituz, eta halako alaitasuna eragin zidan. Oinetakorik gabe ibiltzea onuragarria omen da, energia txarrak deskargatzeko. Naturismoaren ikuspegiaz irakurtzen aritu naiz eta horretaz ziharduena. Era berean oinetako sintetikoak, badakizu plastikozkoak, ez dira batere gomendagarriak, ez dietelako oinei arnasa hartzen uzten; eta ondorioz, oinak egosi eta ito egiten direlako. Finean, gorputzari ere antzeko zerbait gertatzen zaio, arropaz goraino estalita, seko itota pasatzen dugu negua. Naturismoa bizitzeko filosofia bat da, kontsumismoaren aurkako jarrera erakusten duena, bizimodu xaloa bultzatzen duena. Elikagai arin eta

garbiak, batez ere barazki eta frutak, jaten dituzte naturistek. Naturarekiko kontaktuari garrantzi handia ematen diote, eta gustatzen zait naturismoaren ikuspegia.

Luze hitz egin daiteke naturismoaz, eta ni ez naiz aditua, baina irakurri dut halaber, naturismoak sinesten duela gorputzak berrosatzeko duen ahalmenaz eta interesgarria deritzot. Bestalde, biluztea ere naturismoarekin uztartzen da, norberarekiko errespetua, besteekiko eta naturarekiko errespetua erakusten da, eta naturismoa edo biluztea zentzu zabalagoan ere landu dezakegu, bai kanpotik bai barrutik biluztuz, alegia.

Kontuak kontu, oinak biluztuak nituenean, eta animatzen hasia nintzela, berriz ere abuztu amaierako arrats freskoak nabaritu ditut behatz puntetan eta oinetako itxiak jantzi behar. Akabo erromanizismo haize guztiak. Baina zuek eta nik badakigu zer nolako plazera den biluztea.

*“Arropaz goraino estalita, seko itota pasatzen dugu negua”*



IV. URTEURRENA

## *Faustina Zubiaurre San Martin*

2014ko irailaren 8an hil zen, 90 urte zituela. Haren oroimenez IV. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailaren 8an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

**Andra garbosia zan  
Metalkuakua  
makiña bat urtian  
lan egindakua  
bizitzen jakin zaban  
ze zoriontsua!  
Ama, amama Fausti  
zu beti goguan.**

*Urtea azkar pasatu arren  
askorako eman digu.  
Oroitzapenak ez dira joan,  
gurekin baitakarzkigu.  
Irribarre hori ezin ahaztu  
eramaten badakigu.  
Aurrera goaz, atzea ikur  
ta datozenak testigu,  
zuenganako maitasunean  
eta zorretan beti gu.*

## *Maria Ansola Zigorruga*

*Lehen urteurrena*



II. URTEURRENA

## *Juan Angel Iriondo Kortabitarte*

*"Angelo"*

2016ko abuztuaren 8an hil zen, 80 urte zituela.

**Gurutzepeko koxkan alkartu giñan, kontu kontari Elgoibarra begira.  
Gustora egin gendun berriketan orduko hartan ere,  
aspaldiko pasadizuak errepasatzen.  
Gorantziak banatzeko errekaugaz besarkada luze batekin agurtu giñan.  
Hurrengo batian alkartu bittartian, bihotzian zaittugu.  
Muxu haundi bat gu danon partez.**

Zure familixakuak



# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**  
BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
tienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com  
BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
taller@pagoagasa.com  
ELGOIBAR

**Fontanería Ibámar**  
ITURGINTZA  
San Roke 10-A, behe B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskalnet.net

**ONGI** Iturgintza  
Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com

**TELLABIDE**  
ITURGINTZA  
  
Azpilgoeta 7 behe - Mendara  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintzatelellabide@hotmail.com

**SANTANA**  
  
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.  
Urazandi kalea 17, behe  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

## ARozTEGIak

**ASIMA**  
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar  
687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**  
ARozTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industrigunea, 1-0/ 1-P  
943 740 547  


**BIENA S.L.**  
ARozTEGIA  
Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus  
f

**IMAR**  
ARozTEGIA  
Olaso industrigunea, 17 behe  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriaimar@hotmail.com  
f

**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak  
Kurutx-gain Industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
www.iraolagoitia.com

## ELEKTRIZITATEA

**CARRANZA,**  
ELEKTRIZITATEA  
  
Uparitzaga 10, 6.B  
Elgoibar  
karranzajit@gmail.com  
Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.  
Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR  
Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Uruzuno, 14 behe  
20870 ELGOIBAR  
Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

**iparelek** S.L.  
elektrizitatea  
Kilimon hiribidea, 1 - Mendara  
943 530 356  
iparelek@gmail.com  
iparelek@iparelek.com

## LEIHOAK

**LODOSO LEIHOAK**  
SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 233  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

## IGELTSERITZA

**A.Garate**  
Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua  
angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkoa  
Elgoibar  
**610 226 651**

**I.E. ARANDIA**  
ERREFORMA ETA LEIHOAK  
Urasandi, 22 behe - Elgoibar  
Tel.: 605 705 204  
Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurarekin ere  
lan egiten dugu.

## PINTURA

**BLOK**  
dekorazioa  
Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
biok@biokdekorazioa.com